

Estimulazio kognitiboko tailerra



Parrokia-zentroak

Urteek aurrera egin ahala, arretak eta memoriak huts egiten dute. Tailer honen bidez, arreta eta pertzepzioa, memoria eta hizkuntza hobetu daitezke, bai eta arrazoitze logikoa eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko gaitasunak indartu ere. Gainera, sozializatzeko bide bat da.

Eskoletan ahozko hizkuntza lantzen da: parte-hartzaileek anekdotak, iritziak eta bizipenak kontatzen dituzte modu egituratu batean. Eta hizkuntza idatzia ere lantzen da, irakurriaren ulermena eta idazketa hobetzeko helburuz egiten diren fitxen bitartez. Memoria mota desberdinak ere jorratzen dira, jolas bisual, logiko eta ahozkoen bidez, ikusi, entzun eta hitz egiteko fitxen eta edukien bidez. Arrazoitze deduktiboa, adimen espaziala eta eguneroko bizitzako arazoak konpontzeko gaitasuna sustatzea da ariketa horien guztien helburua.

Tailerrak modu pertsonalizatuan eskaintzen dira, ikasle bakoitzarentzako arreta espezifikoarekin, eta banakako eta taldekako lana uztartuz.

Taldeak

Tailerrak Sokaren Etxean eta parrokia-taldeetan edo Caritasekin lotutako taldeetan ematen dira.

Bi talde daude Adurtzako Gizarte-Etxean (Heraclio Fournier, 28), eta beste bi La Esperanzan

(Herrandarrak, 33). Horrez gain, talde bana dago parrokia hauetan: Las Nieves (Valladolid, 1), San Mateo (Gorbea, 19), San Martin (Gustavo Maeztu, 8), San Pedro (Hedegile, 26), Hegalpe (Antonio Machado, 9), San Juan (Sutaustegi Zaharra, 2) eta San Pablo (Kexaako Gaztelua, 5), bai eta Autolaguntza Taldea ere (Jacinto Benavente, 44).